

NEGOZIOAREN IDEIA

Gure negozioaren helburua da garraio publikoko zerbitzu irisgarri, eroso eta bereziki egokitu bat eskaintzea Arabako herrietan bizi den jende elduari. Gaur egun, Arabako herri askotan mugitzeko zailtasun handiak dituzte, eta horrek zaildu egiten du adinekoek osasun-zentroetara, farmazietara edo funtsezko saltokietara joateko aukera izatea; ez hori bakarrik, bere denbora librean egin nahi dituzten gauzak egiteko. Egoera horri erantzuteko, autobusak eskainiko ditugu, Gertubus izeneko enpresarekin.

Egingo ditugun ibilbideak gaur egun Araba Busek estaltzen dituen berdinak izango dira. Hala ere, badakigu herri guztiek ez dutela gertu autobus-geltoki bat. Hori konpontzeko, gure aplikazio mugikorrek eta gure webguneak aukera osagarri bat izango dute: taxi zerbitzu bat kontratatzeko aukera, erabiltzailea bere etxetik edo bere herritik hurbilen dagoen autobusaren geltokira eramango duena. Horrela, inor ez da baztertuko distantziagatik edo azpiegitura ezagatik.

Ibilgailuak ahalik eta erosotasun handiena bermatzeko egokituta egongo dira: plataforma jasotzaileak, eserleku ergonomikoak, klimatizazio egokia eta mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako espazioak. Langile guztiak prestatuta egongo dira tratu hurbila, errespetuzkoa eta adinekoen beharretara egokitua eskaintzeko.

Lehen esan dudan bezala aplikaziotik ez ezik, gure web gunetik ere aukera izango dute autobusean eserlekua erreserbatzeko. Zerbitzu digitalez gain, udalekin lankidetzat estua ezarriko da kartelen, tokiko aldizkarien eta aurrez aurreko informazio-saioen bidezko komunikazioa indartzeko, pertsona guztiek tresna digitalak erabiltzen ez dituztela badakigulako.

Ordainketa-sistemak BAT, Barik eta Mugi txartelak onartuko ditu, eta erabiltzaileei lehendik ezagunak diren garraio-metodoak erabiltzea erraztuko die. Proiektua bidaietatik eratorritako diru-sarrerekin ez ezik, udalaren eta foruen laguntzaz, autobusetako publizitatearen eta babes-akordioen bidez ere finantzatuko da.

Proiektuaren helburu nagusien artean honako hauek daude: adinekoei funtsezko zerbitzuetarako sarbidea bermatzea (osasun-zentroak, farmaziak edo dendak), komunikazio gutxiko herrietan pertsona askok jasaten duten gizarte-isolamendua murriztea, eta lehendik dagoen garraio publikoa osatzea, Araba Busen ibilbide berberei jarraituz, baina taxi-zerbitzu gehigarri bat eskainiz, edozein pertsona gertuen dagoen geltokira iritsi ahal izateko. Horretaz aparte, adineko jendearentzat denez prezio merkeagoa izango dute eta gero hirira heltzerakoan beraiek nahi duten lekuan uzteko aukera izango dute, autobus parada bat egon beharko da autobusa gera dadin. Gainera, garraio eroso, irisgarria eta egokitua eskaini nahi da, erabiltzaileen autonomia eta independentzia sustatuz, mugikortasun jasangarri eta arduratsuko eredu bat bultzatuz, eta udalekin eta toki-erakundeekin lankidetzan estuan arituz, informazio-sare argi eta hurbil bat sortzeko.